

ZUHAITZAK LANDATZEN ZITUEN GIZONA

Funtsezkoa liteke, gizakitasunak ezohiko dohainak erakuts ditzan, urterik urte duen eraginari begiestea. Egoismo gabeturik baldin bada eginbide hori eta norabidetu duen ideia eman-kortasuna izanez gero, gaude beraz, huts egiteko arriskurik gabe, aiurri ahanztezin baten aurrean.

Orain berrogei bat urte, *Provence* delakoan sartzen den Alpeetako eskualde zahar horren zehar nenbilen turistek ezezagun goialde horietan. *Sisteron* eta *Mirabeau* artean dagoen *Durance* ibaiak mugatzen du eremua hegoaldean, iparraldean aldiz *Drome* ibaiak, bere iturritik *Die* izeneko herriraino eta *Ventoux* lepoa da bere mugarik urrunena.

Larre idor eta monotonoetan, mila berrehun metro inguruan, ibilaldi luze honi lotu nintzaioneko egunean hasi zen dena. Izpiliku basatiak baizik ez ziren. Bere zabaltasun haundie-nean zeharkatzen nuen herri hori eta, hiru egun ondoren, adibiderik gabeko triskantzan nengoen. Herri abandonatu baten hezurtzaren ondoan nintzen kanpatzen. Bezperatik ura falta zen eta behar gorrian nengoen. Metatu etxe horiek, hondarrak izanik ere, liztor-habi zahar baten gisan, pentsarazi zidaten egon behar izan zen putz ala iturri bat behialan. Bai, iturria bazegoen baina idor-idorra. Teilatu gabeko bostpasei etxeak, hai-

ze eta eurik karraskatuak, gainbeheratu zeinutegiko kapela txikia, herri bizieta bezalaxe ordenatuak baziren ere, arimarik ez zen ageri. Ekaineko egun eguzkitsua zen baina zero goialdeko larre horietan haizea ari zen bortizki ufaka. Aterperik ez eta etxe karkasa horien burrunbak zirudien bazkarian gogaitu basa-piztiarena. Akanpalekutik abiatu behar izan nuen. Bortz oren ibili arren, ez nuen urik atxeman eta aurkituko nuenaren seinalerik ere ez. Denetan idorte bera, belar haritsu berdinak. Urrunean zutik, silueta txiki beltz bat nabaritu nuen. Zuhaitz enbor bakarti batentzat hartu nuenarengana hurbildu nintzen, hala beharrez. Artzain bat zen. Bere aldamenean lur kiskalgarrietan etzanik, atsedena hartzen zuen kabala, arakan. Bere zahakotik edanarazi eta berantago mendi maldan zeukan arditegira eraman ninduen. Ura, gailena, tiratzen zuen zilo sakon sakon batetik zoinetan oinarrizko gindaxa lardaskatu zuen.

Bakartiak bezala, eleketari haundia ez bazen ere, berengana sineskortasuna sumatzen ahal genuen.

Ezohikoa zen herri gabetu horretan. Ez zen etxola zaharkitu batean bizi baina bere heldueran atxaman hondar petatxatu harrizko etxe batean baizik. Teilatu hermetiko bezain azkarra zeukan. Ia eten gabe bortxatzen zuen haizeak itsasoko erresakaren herotsa zegieen teilatuan. Etxea txukun txukuna zen, baxera garbitua, oholtza erraztatua, eskopeta gantzutua eta eltze-karia sutegian zeukan mamitzen ari. Bere bizarra artoski eginaz eta paltoaren finki jositako botoinetaz baita xeheki sareztaturik jantzietaz ere nintzen deus aipatu gabe ohartu. Usain ezin goxoagorik zerion eltze-karia nirekin partekatu eta pipatzeari aspaldian utzi ziola erran zidan nire tabakoa hurbiltzen niola ikusrik. Txakurra, zatarkeri gabekoa, bera bezain jabala zen.

Herririk hurbilena hemendik bi egunera zegoenez gaua berekin iragateko luzatu nion eskasa eta adostu zen berehala. Gainera, goialde horietako mazeletan sakabanatuak zeuden bostpasei alderrien laztasuna nezaguen. Ikatza zegiten aizkola-

riak bizi ziren gurdi bide muturretako ametzen artean. Neurritz gabeko klima gogor horretan tinkatu familiak egoismoa ernegatzen zuten. Adimengabeko ambizioa neurrigabetzen zen herri galdu honetatik ihes egitearen desio jarraikian. Gizonek zekarten ikatza herrira eta emazteek aiherrak zituzten su txikian egosten. Denetan lehia, elizan, ikatz salmentan, grina gaiztoen batailetan baita bertuteen

borrokan ere. Horrez gain etengabeko haizeak ere zainak sumintzen zituen. Suizidio epidemiak ohikoak ziren baita erotasun kasuen ere, frangotan hilgarriak. Mahai gainean zegoen zaku txiki batetik ezkur meta bat isuri zuen artzainak. Bat bestearen ondotik azterketari artoski ekin zion onak txarretatik bananduz. Eskukalditxo bat proposatu nion pipa ahoan nera-malarik baina hobeko nuela lan horretan sudurra ez sartzea garbi azaldu zidan bere isiltasunak. Lan honi ematen zion arre-ta ikusirik isildu eta hor gelditu zen solasaldia. Ezkur hobere-nak banandu zituenerako hamarnaka biltzen zituen. Izan ere fruitu txipiak edo arrailduak baztertzen zituen arre-ta haundiz.

Mahai gainean, ehun ezkur perfektuak zituela gelditu zen eta oheratu ginen. Gizon hori baketsu zen. Biharamunean, bere etxean egun osoa atsedean hartzen iragaiteko eskatu nion. Bai-mena eman zidan asaldegaitza zirudien artzainak. Pausaldia beharrezkoa ez bazatekeen ere azpiak bilbatua nintzen eta gehi-xago jakin nahi nuen. Biharamunean, kabala atera eta alhagune-runtz akuilatu aintzin larruzko zaku txipi batean bezperan bildu-tako ezkurak busti zituen uhoitz batean. Makila gisan, metro bat eta erdiko burdinezko barra bat zeramala nabaritu nuen be-re atzean hartu nuen saihes bidetik. Ardiak txakurraren menpe alhan utzi eta nengoen lekurantz igo zen. Beldur nintzen nire-gan etor zekidan nire begiluzekeria egotziz baina ez. Bere bidea zen eta hobeagorik ez banu komitatu ninduen berekin jarraiki-tzera. Hemendik berrehun metrotara zihoan goialderuntz. Nahi zuen lekura helduta, bere burdin barra lurrean sartzen hasi zen eta zilo bakotxean ezkur bana landatu zuen. Haritzak landatzen

zituen. Lurraren jabea zenentz galdetu nion. Ez zidan ihardetsi. Ba ote zekien norena zen ?

Ez zekien. Axolarik ez zuen, jendearena ala herriarena zela suposatzen zuen. Bera ez zen jabeak ezagutzearren kezkatzen. Beraz ehun ezkur landatu zituen artoski. Bazkaria bukatu eta berriz ekin zion ezkur sailkatzeari. Behin eta berriz hasi nintzaion galdezka eta iluntze hartan erantzun zuen behingotz. Orain dela hiru urte zuhaitzen landatzen hasi zen. Ehun mila landatu zituen. Horietarik hoge

mila atera baziren ere oraino erdia galtzear zegoela baze-kien bai kaskarriengatik baita goi arduraren ezustekoengatik ere. Lehen zegoen basamortuan hamar mila zuhaitz sortze-koak zeuzkan beraz. Eta gizon horren adinaz arduratu nintzen. Itxuraz berrogeita hamar urte baino gehiago ematen zuen.

Berrogeita hamaseigarrenean zegoela erran zidan. Elzeard BOUFFIER zuen izena. Lautadan zegoen baserri baten jabea izan zen. Opila egina zuen hantxetan. Bere seme bakarra galdu ondoren emaztekoa ere joan zitzaion. Ondorioz erretiratu zen bakardadean baina bere txakur eta ardiekin goxoan zerman bizitza atsegina zuen hala ere. Behin zuhaitz eskasaz oharturik, hain maite zuen herri hori hil zorian zegoela ebatzi zuen. Eta zer eginik ez zeukanez erabaki zuen arazoa sendotzen. Nik ere gazte izanagatik, bakarti baten bizitza neraman eta banekien bakartien arimak leunki hunkitzen. Etorkizuna, nihaurren eta zorionketaren arabera asmatzera ninduen bor-txatzen nire gaztetasunak hain zuzen. Erran nion hogeita hamar urteren buruan sekulakoak izanen zirela bere haritzak. Xeheki erantzun zidan, jaungoikoak bizia utziko balio, hogeita hamar urte buruan hutsalak izanen ziratekeela. Bestalde, pargoen ugalketa ikasten zuen jadanik eta etxe ondoan mintegia sortua zeukan pagotxatik. Bere artaldeaz gerizatu zuhaitzak egundokoak ziren. Urkiak ere zekuskien oihanaren hondorako non, azaldu zidan, benetako hezetasuna zegoen lurrazalean lo.

Biharamunean bereizi ginen. Ondoko urtean, bost urterako engaiatu nintzen lehen munduko gerran. Infanteriko soldado batek ezin zien ia zuhaitzeri gogo eman. Egia erran gaia ez zitzaidan behin ere bururatu, astitzat edo timbre bildumatzat hartu eta berehala ahantzi nuen. Gerratik landa, soldata nimino baten jasotzailea nintzen baina aire aratz arnastearren desio kiskalgarria neukan hala ere. Aintzinetik pentsaturiko ideiarik gabe, hortik aparte, lurralde soil horien bideari nintzaion berriz lotu.

Herria ez zen aldatu. Alta herri abandonatuaren haraindi, mihise baten gisan, goialdeak tapatzen zituen lantzar grisa nabaritu nuen. Bezperatik, zuhaitzak landatzen zituen artzaina zetorkidan berriz burura. « Hamar mila haritz, pentsatzen nuen, alimaleko zabalgunek hartzen ditek ». Horren beste jende gerra garaian gorputz egiten ikusiz aise asmatzen nuen Elzeard BOUFFIER-ren heriotza. Berrogeita hamar urteko gizonak hiltzear dauden aguretzat badauzkagun ere hogeitaz urte daramatzagularik ez zen zendua. Mardul mardula zen oraino. Ogibidez aldatu zuen. Lau ardi baizik ez zituen baina ehun kofoi zeuzkan ordea. Zuhaitzia arriskuan jartzen zuten ardiak kendu zituen. Ez zen batere gerraz arduratu eta landaketa zerraikien asaldakaitz. 1910-eko haritzek hamar urte zeramatzen eta Elzeard eta ni baino arras altuagoak ziren, ikaragarriak.

Zur eta lur gelditu nintzen eta bera mintzatzen ez zenez egun osoa ixilik eraman genuen bere oihanaren gaindi ibilki. Hamai-kilometro luze eta hiru zabaltasunean zeuzkan. Dena bere esku eta arimatik sortua zela oroitzuz gero, hedabide teknikorik gabe gainera, gizakiak jaungoikoa bezain eraginkorrak izan zitezkeela aise ulertzen zen beraz. Bere ideia segitu zuen eta bista galtzeraino hedatzen ziren pagoak horren lekukoak ziren. Haritzak ostotsuak ziren, kaskarren arriskua gainditu zuten eta goi arduraren oldeei zegokienez, sortu obra suntsitzekotan, zirkloiaz baliatu beharko zukeen jagoitik. Bost urte zeramatzen urkiespila zoragarriak erakutsi zizkidan, erran nahi baita 1915-ekoak, Verdun-en borrokatzen nintzen garaiekoak beraz. Lur azal heze

guzietan ezarri zituen. Nerabeen bezain uxterrak ziren. Artzain zaharrak bere lana setakeriaz zerraikien eta herriruntz itzultzerakoan, betidanik idorrek ziren erreketan ura zerion berriz. Horra nabaritu nuen eraginik egundokoena. Erreka agor horiek omen zekarten ura behialan, lehen aroko garaietan.

Kontakizun lehen lerroetan aipaturiko herri triste hoietariko zombait eraikiak izan ziren Erromatar herri zaharren ondarretan. Arkeologoek, gelditzen ziren aztarnak miatzean amuak aurkitu zituzten non, hogeigarren mendean behartuak ginen ziternen baliatzera egarriz ez hiltzeko. Haizeak ere haziak banatzen zituen. Uraren berragertzearekin batera zumeak, zardak, larreak, baratzeak, loreak eta nolabait bizigura delako bat ere, besteak beste, sortu berri ziren. Baina paisaiaren aldaketa hain erritmo apalean zegien usaian sartu zela nehor harritu gabe.

Erran gabe doa, goiko bakardadeetan erbi eta basurdeen atzetik zebiltzaten ihiztariak zirela zuhaitz txikien ugaritasunaz ohartu baina nehork ez zuen behin ere gizonaren obra andeatu lurraren malizia zelakoan. Aierukaitza zen artzaina eta atsekabetuko genukeen goganbehartuz gero. Nork imajina zezakeen, herrietan zein administrazioetan, halako setarik eskuzabaltasun ederrenean ? 1920-garren urtetik goiti, ez neraman urte bat baino gehiago orain lagun hurkoa nuen Elzeard BOUFFIER bisitatu gabe.

Ez nuen behin ere amore ematen edo zalantzan egona ikusi. Alta, noizean behin durduzara akuilatzen gaitu jaungoikoak berak ere. Ez nuen sekulan bere desengainuen kontua egin. Alabaina, aise asma daiteke, behin baino gehiagotan zorigaitzarekin borrokatu behar izan zuela halako suhartasun baten garaipenerako bidean. Etsimenduarekiko guda ere gogorra izan zitzaion hain segur.

Urte batez, hamar mila astigar baino gehiago landatu zituen. Hil ziren denak. Ondoko urtean, abandonatu zituen eta berriz ekin zion haritzak baino are hobekiago iritsi ziren pagoen lan-

datzeari. Ez ohiko aiurri horren irudikatzekoan, ez ahantz, bakardadean igaro urte luze horiek ia kendu ziotela jendearekilako elestatzearren gaitasuna ala ez zekusiela gehiago horren premia.

1933-garren urtean, gure artzainari bisita egin zion basozain txotxolo batek, oihanaren hazkuntza arriskuan jartzearren beldurrez, surik ez egiteko larderiatu zion ikusi zuen nehoren laguntzarik gabe sortutako lehen oihana zela gehituz. Garai horretan, artzaina bere etxetik hamabi kilometrotara zihoan pagoen landatzera eta joan-jinak ez egiteko nahizik, ezen hirurogeita hamabost urte zeramatzan, bere landaredien lurretan zeukan harrizko etxola baten eraikitzearen egitasmoa.

Erran eta egin, ondoko urtean gauzatu zuen. 1935-garren urtean, ingurunearen garapeneko ordezkari zeta etorri zitzaion oihanaren arakatzekotan. Baso kudeatzaile bat, eskualdeko deputatua baita teknikalariak ere bazeuden. Ele zotzak airean ibili baziren ere bi erabaki baliagarriak hartu zituzten. Lehendabizikoa, oihana estatutuaren babesapean ezartzea eta bigarrenik ikatza egitearren debekua. Ezen ezinezkoa izan zitzaien fleitean zeuden zuhaitz gazte horien parean irmo gelditzea eta deputatua bera ere mirari horren zoramenean gelditu zen. Ordezkari zetan ari zen basozainen kapitaina lagun ona nuen. Misterioa azaldu nion beraz.

Hurrengo asteko egun batean, ikuskatzearren lekutik hogeitaz kilometrotara, Elzeard aurkitu genuen buru-belarri lanean. Kapitainak gauzen balioa ezagutzen zuenez ez zuen behin ere sasi langile sutsu horren sekretua argitara eman.

Ekarri arrautzak maneatu nituen erregali gisan eta paisaiari so geratu gintzaion hirurok hamaiketakoaren ondoko orengan. Bostpasei metroko zuhaitzez estalia zegoen muinotik gertozela 1913-ko herriaren itxura gogoratu nuen, erran nahi baita basamortuarena. Oraino zenbat hektare estaltzeko zituen galdetza nindagon berriz arimaren jabaltasuna baizik ez zerion gure agure maitagarriari. Bereizi aintzin, kapitainak hemengo

lurrari komeniko zitezkeen muin zonbaiti buruz hitz egin zion baina setatu gabe artzaina bera baino jakintsuagoa zela oharturik. Oren baten buruan, gehitu zidan: «Jende gehienak baino gehiago zakik, zorionerako bidean zabilek».

Kapitainari esker, oihanaz gain gizonaren zoriona ere salbatua izan zen. Babesterako izendatu hiru basozainak, hain laztu izanak, aizkolarien iradokizunentzat zeunden soraio. Oihana, 1939-eko gerra garaian baizik ez da arrisku larrian izan. Beribilak gazogenaz zebiltzalarik, egurra beti eskas. Ondorioz, 1910-eko haritzen mozketak hasi ziren baina haritztoi horiek garraio-bide guztietatik hain urrun izaki entrepesa bertan behera abandonatu behar izan zuten. Artzainak, 39-ko gerla alde batera utziz, hemendik hogeita hamar kilometrotara bere lana itsutuki zerraikienez ez zuen deusik sarraskiaz ikusi. Elzeard BOUFFIER azkenaldikotz ikusi nuen 1945-eko ekainean.

Laurogeita zazpi urte zeramatzan orduan. Munduko gerrak herria ia erabat hondatu bazuen ere, *Durance* aranaren eta inguruko mendien arteko bidea zegien autobusa martxan jarri zuten. Erlatiboki zalu zen baina behialan ezagutu nuen triskanztan neramala bururatzeko herri baten sarrerako lauki baten laguntza behar izan nuen. Zinez arrotza bazitzaidan ere erabaki nuen autobusetik salto egitea 1913an hiru arima zeuzkan *Vergons*-en aldera. Lehen elkarkiro herratsu zeuden hiru ari-mak histori aurreko estatu fisiko eta moralean bizi ziren aitzikaiz, itxaropenik gabeko kondizioan.

Herria erabat aldatu zen baita airea ere. Behialan astintzen ninduten tarrapata idor eta bortitzen ordez ufaka ari zen usain goxoen haize eramaile bat. Goialdetik uraren txistua jaisten zen eta uraskara zerion uraren soinu lasaigarria nentzuen. Berantago narbitu nuen berri eraikitako iturriak liluratu ninduen eta are gehiago bere aldamean lau urte zeramatzan berpizte ezeztazekin simbo-loa zen ezkiak. Denetan aldaketa izugarri baten aztarnak, itxaropena *Vergons*-era itzulia zenaren lekukoak. Lehenagoko

hondamenetik bost etxe eder sortu ziren eta hogeita zortzi biztanle berri errotu ziren alderrian. Horietariko lau bikote gazteak ziren eta berri emokatu zituzten etxe ingurutan baratzeak zeuzkaten non, nahasirik ere, ugaritzen ziren barazkiak, azak, porruak, apioak, arrosatzeak, astapitzak eta eguerdiliak, besteak beste.

Oraindanik alderriak bizigura zemaikien. Hortik goiti bidea oinez egin nuen. Doi-doi ateratzen ginen gerrak bizitzaren garapen osoa ahalbidetu ez bazuen ere *Lazard* tombatik kanpo zegoen. Mendi mazaletan garagar eta zekalezko soroak berdatzen nekuskien baita pentze zonbait ere aran ertsietan. Garai hartatik aldentzen gintuzten zortzi urte horiek baizik ez ziren beharrezkoak izan herria osasun eta aiseriez izarna zedin. 1913-eko Hondametan baserri txukunak badaude orain, bizi uros eta eroso baten lekukoak. Iturri zaharrek, oihanek atxiki elur eta euri direla medio isurtzen dute berriz. Baserri guztien aldamenean, gatzigar-hespilen artean, uraskak minta fresko tapizetara ari dira gainezka.

Herriak berreraikitzen dira harriz harri. Lurra garesti saltzen den ordokietatik etorritako populazio bat errotzen hasi da herrian, berekin batera gazteria eta abenturarako gura eramanik. Gantza aise daramaten gizon eta emaztekiak gurutzatzen ditugu nonahi baita besta herrikoiien ibiltari gazteen irri-algarak aditzen ere.

Nolazpait erran liteke, herriak dauzkan alegeran bizi hamar mila lagunek dezaguten zoriona zor diotela Elzeard BOUFFIER jaunaren eskuzabaltasunari. Ahalmen murrizteko bakarti horren obra den oasi miresgarria dela jaugoikoaren parekoa datorkit burura eta gure baserriar ez jakintsu maitagarriak isiltasunetik behin ere atera gabe eta duintasunik haundienean eraman lana azpimarratuko dut gure gogoetan luzaroan egon dadilan.

Elzeard BOUFFIER artzainak gorputz egin zuen 1947garren urtean, *Banon-eko* ospizioan.

Jean GIONO
(itzulpena: Manex AGOSTINI)